

noa.ua

Galerna giroa
Sanmarko
Mankomunitatean

Euskol sindikatuek
greba dela egin dute
irailaren 26rako

Larunbatean
"Euskaras bizi
nahi dut" lasterketa

**Festa giroa
Santuenean**





FRANTSES KLASEAK

- Frantzia oso gertu dagoelako
- Profesionalki garrantzitsua
- Frantses pixkat bazenekien baina ahaztu bazaizu eta berreskuratu nahi baduzu...
- Jubilatuentzat ere klaseak

AUKERA EDERRA DAUKAZU!

Astean zehar ordutegi ezberdinak
aukeran goizez edo arratsaldez

608 18 03 07 Usurbil

MIKEL HADENNA

**TALDE MURRIZTUAK ETA
PERTSONALIZATUAK**

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa · Selektibitatea
- Lanbide heziketa
- Ikasketa teknikoak
- Hizkuntzak

629944690

Galtzaragaña 1, behea USURBIL

DIGITAL+

**antenas
Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.

Orain Usurbilgo erdigunean
Ltd-ko kanal berri hauek
ikusteko aukera ...

8 gipuzkoa **teledonost** **4 amaika**
ikusteko, bizitzeko

elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com

t d t

Albisteak iruditan

Euskara ikastea diruz laguntzen jarraituko dute Buruntzaldeko Udalek

Hilabete hasieratik zabalik dago Buruntzaldeko euskaltegietako izen emateko epea. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udal eta euskaltegietako ordezkariak joan den astean aurkeztu zuten ordea 2012-2013 ikasturterako matrikulazio kanpaina.

Beste urte batzuetan bezala, euskara ikastea diruz lagunduko dute Udalek. Usurbilgo kasuan, oro har %80an, %100ean langabetuen eta 12 urtetik bererako seme-alabak dituzten gurasoen kasuan.



Buruntzaldeko udal zein euskaltegietako ordezkariak, Potxoenean egin zuten agerraldian.

URRITIK, ABIAN IKASTURTEA

Ikasturte berrirako izen emateko ordutegi honetan gertura daiteke Kale Nagusia, 45 behean kokatua dagoen euskaltegia: astelehenetik ostiralera, 11:00-13:00 ar-

tean, edo 18:00-20:00 artean. Deitu bestela, 607 609 379 telefono zenbakira. Edo idatzi email bat, usurbil@ae.org

helbidera. Informazio gehiago: Potxoenean, edota buruntzaldea.org atarian. Urriaren 1ean hasiko da ikasturtea.

Laburrean

Urriaren 14an, 1946an jaiotako kinto bazkaria

Urriaren 14rako kinto bazkaria antolatu dute 1946. urtean jaio zirenentzat. Datorren hileko bigarren igandean 14:00ak alderako jarri dute hitzordua, Antxeta jatetxean.

943 363 448 telefono zenbakian edo Laurok liburu dendan eman daiteke izena. "Anima zaitetze!" luzatu dute gonbita kinto bazkari honen antolatzaileek.

Santixabeletako bideoa, Interneten ikusgai

Irailaren 8an, jaietako argazki eta bideoen proiektioa egin zen Sutein. Orain, jaietako bideoa atal-ka ikus dezakegu Internet sarean. Santixabele buruzko ikusentzuneak ikusgai ipini baitu Udalak bere web orrian: www.usurbil.net

"Peru Galbete txukundu du bideoa. Laster izango da eskuragarri herritar guztientzat", adierazi dute udal iturriek.

Santixabeletako danborradakoen afaria

Herriko jaietako danborradan parte hartu zutenentzat afaria antolatu dute irailaren 29an, Zubietako soziedadean. Gaueko 21:00etarako finkatu dute biltzeko hitzordua. Otordura joan asmo dutenek, aldezturik eman behar dute izena, irailaren 24a baino lehen, bi telefono zenbaki hauetako batera deituta: 676 333 777 (Marijo) edo 618 866 204 (Adela).



Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.com /// www.noaqua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Uuskal prenoak



Uuskal Herraia!

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkari koordintzaileak:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Arantxa Zulaika,
publizitatea@noaqua.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,
Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Aloña Esnaola,

Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiet, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldia, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Maialen Unanue**

Ur ertzetik harago joan: hor dago koska

Duela ez urte asko, "arrakas-tarako bidea" ikastea zela -edo ahalik eta titulu akademiko gehien izatea- errepikatzen ziguten ikastola eta institutuak. Etxean ere bai, eta ikasi nahi ez bagenuen, lanera. Gomendio etengabeko hark presio itzela eragin zigun bati baino gehiagori, esango nuke.

Bi edo hiru urte nituenetik, gaur arte, ikasturte hau izango da hezkuntza-titulu bat lortzea ardatz izango ez dudana lehenengoa, eta horrek halako bertigo sortzen dit, airtortzen dut.

Jakin behar dela suposatzen den horretaz guztiaz harago, lezio garrantzitsuagoak ikasi ditut aurretik, edo hori uste dut. Egun sormena garrantzitsuagoa da erregeak sinatutako beste edozein paper zati baino.

Zerk motibatzen zaituen argi izan eta norbere baliabideak erabili zer hori sortzeko.

Jendea ezagutzeak ere laguntzen du, han eta hemen lagunak izateak, eta norbere eta besteen gaitasunak aprobetxatzea helburu horiek lortzeko.

Horregatik diote zenbaitek

infernua ere lagunak eduki behar direla.

Baina batez ere, ausarta izan behar da. Lotsak ahaztu eta igerilekura salto egin, ura noraino helduko zaizun neurtzen ibili gabe. Ikastea baita helburua, eta, ikasi, gauza txarretatik gehiago ikasten dugu, onetatik baino. Ur ertzean gera zaitezke hormari helduta, seguru eta geldia. Edo igeri egin dezakezu, hormatik askatu eta ur azalean ito gabe bizirauten saiatu. Ur ertzetik harago joan: hor dago koska.

Horma askatu dut eta banao

aurrera. Ziurrenik laguntza eskatu beharko dut bide erdira iritsi aurretik, baina zer du horrek txarretik?

Ez zigun inork etengabe errepikatu bizitzarako baliagarriena autonomia izatea zela; nork bere kabuz helburuak finkatu eta lortzeko gai izatea, alegia. Oker banabil, barka nazatela.

Ikasturte hau izango da hezkuntza-titulu bat lortzea ardatz izango ez dudana lehenengoa, eta ez daukat horri aurre egiteko inongo apurterik: ez dut igeri egitea beste aukerarik.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Maialen Unanue** | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Unai Agirre | Idoia Torregarai

Ika-Mika

Ospital atarian

Abuztu guztian, Osakidetzak Donostian duen ospital atarian bildutako en aldarrira "Josu eta beste 13 euskal preso politiko gaixo daudenak etxera" izan da. Eta hala jarraitzen du izaten. Bertan, gose greba, baraualdi, elkarretaratze, hizlari, kirolari, musikari, bertsolari, kazetari, abeslari, sindikatu, alderdi politiko, manifestazio, eta abar luzea izan da. Eta aldarririk honen bat egin dute Espainiako eta Frantziako 65 espetxe baino gehiagotan egoera latzean (lekuko preso gaixoak) dituzten 500 euskal preso politiko baino gehiagok.

Giza eskubideak esaten duena bete dadila. Europako Legediak esa-

ten duena. Madrilek eta Parisek sinatu dutena. Pertsona bakoitzari (gaixo den presoari) zor zaiona. Duintasun osoz Josuk berak epaileari "bete ezazu legea" esan zion bezala. Hori da aldarririk bakoitzak eskatzen duena. Asko eskatzea al da? Hemen ez dago inolako azpizkorik. Baina beraien legea bete beharrean, hilabete zehar, Madrildik mendeku hitza geroz eta ozenago entzun denez, Josuren egoera okertuz joan da irailaren erdira arte eta gatazka luzatzen doa beste 13 euskal preso politiko gaixoentzat. Paris berriz, ez da atzean gelditu, noski.

Eraso basati hau ez da Madrildik eta Parisetik bakarrik izan. Begiratu

bestela, Osakidetzako sendagile profesionalek Josuren gaitz senda ezina eta bere biziaren bukaera azkarra baieztatu eta gero, hala ere, Lopez jaunak eta bere alderdiak zer egin duten.

Beste horrenbeste esan dezakegu "elektolarismoa" eta "espektakulua" ikusi dituela esanez ibili den lehen dakari gai den Urkullu jaunaz. Hori al da gatazka politiko honi jartzen dion etika? Zer egin du bere alderdiak? Edo Basagoitik, "preso diren gaixoak bost axola zaizkiola" dioenean, ez al du mendekua goraiatu?

Horrelako jokabide eskasen aurrean, nik nahiago dut ospital atarian izan dugun pertsonen elkartasun

giroari eutsi eta jarraitu. Oraindik ezin dut ahaztu: "umea nintzela ezagutu nuen gerra eta ondorengo urtetan ezin genuen euskaraz egin eta geroztik bide berdinetik dijoazenen kontra nago eta zuekin bat egiten dut" esanez inguratu zitzaigun 80 urtetik gora izango zituen bikote hura. Edo bilobak besotik heldu eta pauso txikia emanez inguratu eta "estamos con vosotros, os lo digo para que lo sepais" esan ondoren ospitalera sartu zen emakumea.

Ni, elkartasun mezu, goxo, itxaropentsu eta aurrerakoiarekin gelditzen naiz. Eta... zu?

Orkatz*

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. Ale bakoitzean ez dira bi Ika-mika baino gehiago argitaratuko. Ika-mika bat baino gehiago iristen bada, NOAUA!k idatzi horietako bat hurrengo ale batean argitaratzeko eskubidea izango du. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: irailak 28. Idatzia ekartzeko azken eguna: irailak 24.

Lana eta familia bateragarri egiteko diru-laguntzak

Usurbilgo Udaleko parekidetasun sailak, lana eta familia bateragarri egiteko diru-laguntzen berri ematen du. Eusko Jaurlaritzak ireki du jada diru-laguntza hauek eskatzeko epea eta bi diru-laguntza mota eskaintzen dira: "Lana eta familia bateragarri egiteko diru-laguntzak" batetik; "Seme-alaba adingabeak zaintzeko diru-laguntzak" bestetik.

LANA-FAMILIA BATERAGARRI EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK:

Hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eszedentzia. Adopzioaren, familia-harreraren (iraunkorra nahiz adopzio-aurrekoa) edo tutoretzaren kasuetan, eszedentzia baliatzeko hiru urteko aldia epaileak edo administrazioak ebazpena ematen duenean hasiko da zenbatzen.

Zortzi urtetik beherako seme-alabak zaintzeko, lanaldia gutxienez heren bat murriztea. Seme-alabak %33ko edo gehiagoko aintzat hartutako urritasuna badu, lanaldia murrizteagatik diru-laguntza seme-alabak 18 urte bete arte baliatu ahal izango da.



www.usurbil.net orrialdean aurkituko duzue informazio zehatzagoa.

SEME-ALABA ADINGABEAK ZAINTEKO DIRU-LAGUNTZAK:

Ardurapeko semeagatik eta/edo alabagatik laguntzak.

Erditzeagatik edo adopzio nazional anizkoi-tzagatik laguntza.

Nazioarteko adopzioagatik laguntza.

Informazio gehiago topatuko duzue Udala-ren web orrian, usurbil.net orrialdean, edota Udaletxean bertaratuz.

Truke Eguna ez da Txokoalden egingo, gaztetxean baizik

Ohiko orduan eta urte garaian bueltan dator Truke Eguna, baina leku berri bat estreinatuz. Gaztetxean burutuko da ekimen honen bosgarren edizioa, igande honetan, irailaren 23an. Trukalariak taldekoek parte hartzea deitzen dituzte herritarrak: "Etxean zenbat gauza dituzu, ongi egon arren erabiltzen ez dituzunak? Ba hemen duzu aukera... Badator Truke Eguna. Ekarri behar ez duzuna eta behar duzuna eraman! Oraingo honetan, gauza materialez gain, denbora eta gaitasunak ere trukatzeko proposatzen dizuegu. Urtero bezala ondoren bazkaria izango da".

Memoria lantzeko ikastaroan, izen ematea ixtear

Ostegun honetan, irailaren 20an itxiko dute izen ematea Gure Pakea elkarteak antolatu duen memoria lantzeko ikastaroan. Apuntatzeko Artzabalgo bulegora jo behar da. Taldeak osatzeko bilera hilaren 24rako deitu dute, 17:00etan Artzabalen. Euskaraz eskainiko den ikastaroa urriaren 5ean hasiko da. Hilaren 1ean aldiz, erdarazkoa.

Urriaren 7an, 80 urtekoen omenaldia egingo dute. 12:00etan meza nagusia eta 14:00etan bazkaria Atxega jatetxean. Txartelak Artzabalgo bulegoan jaso behar dira, irailaren 27a baino lehen.

Aste honetan, Ikastola inguruko aparkalekuak itxita

Hilaren 22ra arte Europa mailan ospatzen den Mugikortasun Iraunkorraren Astea dela eta, "astebetez ikastolako sartu irteerak autorik gabeko gune bilakatzeko asmoa dute". Hala eman du jakitera Udalak. Horregatik, hilaren 17tik 21era, Udarregi inguruko aparkalekuak itxita egongo dira ikastolako sartu-irteera orduotan: goizez, 8:30-9:15 artean, eta eguerdian, 12:15-12:45 artean.

"Helburua, ikastola osatzen duten guraso, irakasle eta seme alabak, autorik gabe bertaratzea da, mugikortasun jasagarriago baten bidez (oinez, bizikletan edo garraio publikoan) ikastola seguruago eta lasaiegia lortzeko", berri eman dute Udaletik.

Arrate eta Gure Pakeako zenbait zerbitzu esleitzeko lehiaketak martxan

Gure Pakea eta Arrate elkarteetako hainbat zerbitzuen erabilera eta kudeaketa esleitzeko lehiaketa abiatu du Usurbilgo Udalak. Zerbitzuak honakoak dira, Udaletik berri eman berri dute-nez:

- Artzabalgo Gure Pakea Elkarteko eta Aginagako Arrate Elkarteko ile-apaindegiz zerbitzuak.
- Gure Pakea Elkarteko podologia zerbitzua.
- Gure Pakea Elkarteko fisioterapia zerbitzua.

Informazio gehiago, usurbil.net web orrialdean edo udaletxean.





AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Zorionak Iñaki Errasti!

Aurtengoan ere giro berezia bizi izango zuten Donostiara inguratu ziren guztiek Kontxako estropadak zirela eta. Kirolaren arloan, urtero, ezustekoren bat gertatzen da, eta aurtan Orioren kanpoan gelditzea suertatu zaio. Askok, hortxe ikusten genuen, onenen artean, baina, bidean gelditu zitzaigun trainera oriotarra. Tristura nagusitu da Orion eta poza berriz Aginagan, Kaikuko arraunlari garrantzitsuenetakoa den Iñaki Errastik irabazi baitu aurtengo bandera prezia-tua. Aipatzekoa da ere, Kaikuko klubak beraien herrira itzuli aurretik, Aginagan ederki bazkalduaz ospatzen dutela garaipena. Ez nuke bukatu nahi, Iñakik, gure herriak Kontxan duen historia gogoratzeko egin zuen ahalegina aipatu gabe, Aginaga ere, historia horren parte baita, hortxe daude, Aginagak lortutako bi banderak.

Historia historia da, baina, trainerillak ere azken urte hauetan bezalaxe hementxe izango ditugu gure "erri-yuan", irailaren 29an. Amaitzeko, gure herrian ospatuko den estropada horretan parte hartuko duten gure arraunlariei nire animoak eman, ikurrina gure artean geratu dadin.



KALEBERRI

MADDI ZALDUA

Animo eta ondo pasa!

Bukatu dira oporrak. Udarari ere eguntxo batzuk besterik ez zaizkio geratzen eta honek errutina bizkor batera eman digu sarre-ra. Aurrekoetan lez, udara honek ere eskaini ditu egun pasa ederrez gozatzeko aukerak, eta baita gaupasak egiteko ekintza mordo bat ere. Nik herritik kanpo gozatu dut aurtengo udara, baina izan dut herrikoaren berri. Usurbilek ederki pasatzeko mila aukeraz gozatu duela badakit; San Juan suaren inguruan dantzatzetik hasi, eta Hippyen ospakizun koloretsura arte. Baina udara amaitzean den honetan eta errutinan murgiltzen hasi behar dugun arren, oraindik ere izango dugu festarako aitzakiaren bat edo beste, badakizue ezin baita erritmoa galdu! Datorren aste bukaeran, Santu Enea auzoaren txanda izango da eta jarraian Agiñan izango dugu zita. Beraz, dagoeneko liburu artean eta lanean gabiltzan arren ez ahaztu aste bukaerarako plan politik daukagula, asteen zehar egindako esfortzua sarituko duten ekintzak. Animo eta ondo pasa!



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Auzoko festak

Hemen ditugu auzoko festak ate joka, dena prest ostiraletik aurrera ondo pasatzeko. Krisian gaude baina festak ditugun birtartean aprobetxatu, ez dakigu datorren urtean izango ditugun eta. Oraingo eta lehengo auzotarrak biltzeko eta topatzeko aukera ezin hobea izaten da. Eta eguraldiak lagunduko balu, ederra izango litzateke. Pentsatzen dut, mojetara joango zirela, Santa Klareta, arrautza batzuekin noski.

Animatu zaitzete gure auzora etortzera, ze edozein egunetan merezi badu etortzeak, pentsa festak badira. Beti berdina esaten dut baina egia da, festak ez dira bakarrik egiten, eta horren atzean lan bat dago, eta ilusio asko, beraz ea dena ondo ateratzen den.

TXAKURRAK ETA TXAKURREN JABEAK

Beste gai bat ere aipatu nahiko nuke; txakurrak eta txakurren jabeak. Atzo parkean geundela, haurrak, amonak... han zebiltzan hiru txakur, ez uhal edo korrearik, ezta jaberik ondoan ere, eta bitartean batzuk parkean beldurturik, haurrak batez ere.

Ez da gure auzoko kontua bakarrik, hori denok dakigu, baina bai atenzioa deitzen duela, halako leku berezietan arazo hori ikusteak, haurrak parkean beldurtuta? Kontzientzia eta errespetu kontuak dira, betikoa, zakurrak bai, baina behar diren bezala. Eta besterik gabe, esan bezala, aste honetan denok Santueneara, edo Barrio txinora, edo jajaja hobe hemen uztea.



ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

Mingaina dantzan

Sorry, do you speak English? Eta zuk, bueno "I little bit". Zure barnean galdera bonbardeoa. Zenbat urte ingelesa ikasten eta "a little bit" esaten? Udarregin, akademian, Ingalaterran egonaldia, Irlandan oporraldia eta motxilarekin munduan barrena? PET, First eta Advance tituluak besoazpian?

LET'S DANCING YOUR TONGUE!

Batzutan lanean edota Donostian eta Zarautzen zenbait australiarrekin. Hainbeste kostakoa, egunetik egunera zaharkitzen eta baztertzen ari gara. Komunikaziorako giltza eta zubia erdoiltzen doa egunetik egunera. Usurbildik atera gabe ingelesez hitz egin nahi? Aukera paregabea luzatzen zaizu lagun, begi aurrean!

Astero bildu, gure artean ingelesez mintzatu, giro zoragarrian gainera! Animatu eta batu zaitetz ingelesetako mintza praktiketara! Izena eman eta "let's dancing your tongue!"

"Gobernu ardurak ditugun bitartean, lanean jarraituko dugu"

EAJ, PSE eta PPren arteko akordioaren ondorioz, Sanmarko mankomunitateko gobernutik kanpo geratuko dira Bilduko ordezkariak; Denis Itxaso zinegotzi sozialista izendatuko dute presidente



Ainhoa Intxaurrendieta (Bildu) kargutik kentzeko akordioa adostu dute EAJ, PSE eta PP alderdiek.

Azken urte honetan egindako lana gogora ekarri hasi zuen agerraldia Ainhoa Intxaurrendietak, Sanmarkoko lehendakariak: "arduraz aritu gara, serio lanean, hondakinak ongi kudeatzeak onurak besterik ez dituelako ekartzen herritarrentzat". Agur kutsua izan zuen aurreko astean Donostian eskaini zuen prentsaurrekoak. Alboan izan zituen Bilduko hainbat udal hautetsi, tartean, Mertxe Aizpurua Usurbilgo alkatea.

"Herritarren interesak zaintzen aritu gara. Ez dugu enpresa handien interesen mesederako lanik egin nahi izan. Argi dugu zein den bidea: murrizketa eta prebentzioa, berrerrabilpena eta birziklatzea, zabortegirik eta errauste plantarik beharrezko egingo ez duen hondakinen kudeaketa zentzuzkoa. Hau da, gure helburua Gipuzkoa Zero Zabor lurraldea bihurtzea da. Eta posible da, gure ondorengoen osasuna eta bizi kalitatea zaindu nahi ditugulako, behar beharrezkoa delako".

AINHOA INTXAURRENDIETA

"Etxe atarian inork nahi ez duen eta egingo ez den errauste planta defenditzen dute"

Urtebete egin du egungo zuzendaritzak Sanmarkoko mankomunitatea gobernatzen. Denbora honetan hiru Garbigune zabaldu dituzte: Oiartzunen, Hernanin eta Usurbilen. Donostiako bigarren Garbiguneko lanak bideratu dituzte eta

"Urnietako Udalari organikoaren edukiontzia jartzea -5. edukiontzia alegia- ahalbidetu dugu, hala eskatu zuelako bere garaian", esan zuen Ainhoa Intxaurrendietak.

Horretaz gain, "Sanmarko mankomunitatean lanean dabil-tzan enpresen hondakinen azterketa egin dugu, jakiteko zenbat eta zer birziklatzen den. Azterketa horrek esan digu zein den bidea. 4 zatitan beharrean, 14 zatitan bilduko ditugu hondakinak, gaika egingo dugu. Baliogarria den guztia zabortegietara ez botatzeko". Urria-

ren 1ean sartuko da indarrean enpresei eragingo dien araudia.

"ZERGATIK BOTA NAHI GAITUZTE?"

Urrats handiak egin dituztela diote Sanmarkoko egungo kudeatzaileek, "baina norbait min ematen dio guk lana txukun egiteak". Ainhoa Intxaurrendietak, Sanmarkoko lehendakariak eta Lezoko Bilduko zinegotziak, EAJri leporatu zion gobernu aldaketaren ardura: "hamar udal-lerrietatik bederatzitan gobernatzen duen Bildu bota nahi du EAJk. Eta ez dugu ulertzen. Zergatik bota? Akatsik egin al dugu kudeaketan?", galde egin zuen.

ENPRESA HANDIEN INTERESEN MORROI

Herritarren interesen alde lan egin dutela nabarmendu nahi izan zuen Ainhoa Intxaurrendietak. Baina beste batzuk, ordea, "enpresa handien interesen morroi dira", esan zuen. "Eta beldur diote irtenbideak topatzen dituen kudeaketari", esanez amaitu zuen prentsaurrekoa.

Denis Itxasok atez atekoa alde batera uzteko asmoa du

EAJ, PSE eta PPk Sanmarko mankomunitatearen lehendakari kargua aldatzea adostu zuten aurreko astean. Akordio horren arabera, Denis Itxaso Donostiako zinegotzi sozialista izango da lehendakari eta, bere ordezkia, Ramon Gomez PPko hautetsia.

Aginte aldaketa ematen bada

beraz, Sanmarko, Txingudi eta Debararreneko presidentziak izango dituzte sozialistek. Gipuzkoako Hondakinen Partzuer-goan, ordea, Bilduk izango du agintea. Atez ateko bilketa "alde batera" utzi eta 5. edukiontzia- ren aldeko apustua egingo dute- la adierazi du Denis Itxasok.

Gazteek erreleboa hartuta

Ostiralean, arratsaldeko 17:00etan piztuko dute jai hasierako txupinazoa

Auzoko gazteek antolakuntza lanen ardura erreleboan hartuta eta aurtengoan ohi baino asteburu bat beranduago, baina indartsu eta indar berrituta, bueltan datoz Santueneko festak. Orain arte prestakuntza lanek eman dutenaz edota jai gune eta ekitaldi berrien inguruko zehaztasunak dakartzate lerrootan, Maddi Bereziartua eta Itsaso Gonzalez Jai Batzordeko kideek. Asteburu honetan, Santuenean gerturatzeko gonbita luzatzen diete herritarrei.

Prestaketa lanak amaitzeaz izango dituzue jada?

Maddi Bereziartua. Lanak banatu ditugu. Azken asteetan gehiago izan da museko sariak adostea, edariak ekarriko dizkigutenei deitzea...

Azken kontuekin gabilta. Gainera, koa lehenagotik lotua genuen.

Noiz hasi zenituzten prestaketa lanak?

Itsaso Gonzalez. Aurten nahi-

"Jendea behar da zerbitzatzeko, piper eta sardin janetan laguntzeko"

ko goiz hasi gara, ekainean hasi ginen eta astero bildu gara. Aialde Berri sargardotegi kanpoan elkartzen gara, hor egiten ditugu geure bilerak. Azkenean aprobetxatzen dugu bai anto-

latzeko, gure artean egon, aforiak egin eta giro hori sortzeko. Aurten hamabi bat lagun gara, iaz baino gutxiago. Orain arte, jaiak soziedadek antolatzen zituen. Orain soziedadek parte hartuko du festetan, baina ez antolaketan.

M. B. Soziedadek lagundu egingo du. Jardueretarako jendea behar bada, zerbitzatzeko,

piper eta sardin janetan laguntzeko...

Antolakuntza lana zuen kargu beraz aurten. Erreleboa burutu al da jada?

I. G. Orain arte protagonismoa eta antolatze lanaren ardura hori gehiago soziedadek zuen eta gero festetan, denak parte hartzen genuen. Baina aurten erreleboa guk hartu dugu. Guk antolatu ditugu festak, baina beti ere soziedade eta auzoko elkartearekin elkartuz, bilerak eginez. Festetan elkarlanean arituko gara.

Zer moduzkoa izan da errelebo aldaketa hau zuentzat?

M. B. Hasieran handiegi geldituko zen beldur. Gauza guztiak nola egin, galdezka aritu ginen. Baina azkenean ondo egokitu gara.

I. G. Ez genekien zer egin behar genuen. Baina lehenengo aldia izateko, alde zureko prestaketa lana uste baino hobeto eraman dugu. Festa egu-



Hamabi lagun arituko dira antolaketan, baina laguntzaile gehiago beharko dituzte.

"Bingoan Usurbilgo bi antzezle gazte egongo dira, jendea animatzen"

Egitarruari begira, badira nobedadeak?

M. B. Lehen haurren puzgarriak egun osoan egoten ziren. Aurten, larunbat goizean haur jolasak eta pintura lehiaketa egongo dira haurrentzat. Gauean, Josune Aranburuk ezin zuen herri afarira etorri. Ekitaldi horretan zerbait jarri behar zela pentsatu zen, afari horrek beti

izan baitu giroa. Bingoan antolatzea erabaki dugu. Bingoan Usurbilgo bi antzezle gazte egongo dira, jendea animatzen.

I. G. Afalostean, paperak banatuko dira. Bingoa egingo dugu eta opariak egongo dira. Proba egin nahi dugu berrikuntza honekin. Larunbat goizaldean gainera, txokolata txurroekin banatuko dute zaharren

egoitzan. Hori ere berria da. Bestalde, urtero igande arratsalderako ikuskizun bat elkartzen saiatu izan gara; Benito Ros eta motoak, zaldi edota txakurren erakustaldiak, iaz larrak dantzariak egon ziren. Aurten, ez genekien zer ekarri. Berrikuntza gisa, "Neska Kabaret" ikuskizuna izango da; zirko modukoa, malabare edota magia saioekin...

Datoz Santueneko jaiak



“Aparkaleku gutxi dago, oinez etor daitezela festetara”

Aurten ere, Ibaiondoko “gazteek” prestatuko dute piper-jana.

nak ikusi behar orain, batez ere hor ikusi behar baita nola lan egiten den.

Santueneara autoz gerturatzeke ohitura handia dago. Gomendagarria litzateke oinez joatea, ezta?

I. G. Geroz eta aparkaleku gutxiago dago gainera. Berritzean asko kendu zituzten. Oinez etor daitezela bai.

BEZ igoera berriak, krisialdiak... Muga izan al da?

M. B. Mugatu ez, baina komentatu dena da, San Estebanetatik edo beste jaietatik etorri zaiguna da, krisiagatik edo, lehen askoz garestiagoak ziren edari alkoholodunak gehiago edaten zirela. Datozen festa hauetarako, zerbeza eta kalimotxo izateko esan digute. Gehienek hori eskatzen dutela.

Amaitzeko, gonbita egingo zeniekete herritarrei?

I. G. Giro oso ona egongo da. Parranda ona izango da, ekin-tza aldetik bai egunez eta baita gauzez ere. Jatekoa ere egongo da; sardin eta piper-jana... Anima dadila jendea.

M. B. “Neska Kabaret” ikuskizun polita izango da. Gauza berri bat, orain arte herrian ikusi ez dena.

“Frontoia izatea abantaila handia da, festetan beti euria egiten baitu”

Astebete beranduago datoz aurtengo jaiak.

M. B. Aurten irailak bost asteburu ditu. Orduan aukera ematen zigun, hirugarren edo laugarren asteburuan jaiak ospatzeko. Hirugarrengoan Baxurde Krosa ospatzen denez, laugarrengoan antolatzea erabaki genuen, jende gehiago etorriko delakoan.

Kontseiluko lasterketa antolatu da hain zuzen, asteburu hone-tarako.

I. G. Ibilbidea aldatu dute. Santuenan festak direla eta, hemendik igaroko da.

Jaietako eskenatoki berria estreinatu zen iaz; frontoi ingurua.

I. G. Frontoia izatea abantaila han-

dia dela uste dut, festetan beti euria egiten baitu. Iaz Gatiburen kontzertua kanpoan egin zen, euria egin edo ez jende mordoa zegoen. Baina iaz larunbatean ere eguraldi txarra egin zuen. Giro harekin frontoia izatea abantaila handia da. Herri afarirako adibidez, karpak ez dira behar. Frontoian gainera, Jai Batzordeak lokala du.

EGITARAUA 2012

IRAILAK 21 OSTIRALA

- 17:00 Txupinazoa eta txokolatada Tragoxkan. Ondoren globo gerra.
- 18:30 Buruhandiak Zumartxan txarangarekin.
- 19:00 Sardina jana Ibaiondoren eskutik.
- 21:00 Musikarien afariak.
- 23:00 Kontzertuak: Desegin, Makulu ken, Laket.

IRAILAK 22 LARUNBATA

- 11:00 Haur jolasak eta pintura lehiaketa.
- 13:00 Buruhandiak.
- 14:00 Haur bazkaria (norberak bere bazkaria ekarri, edariak eta postrea banatuko dira).
- 16:00 Mus txapelketa (15:30- 16:00 izen-ematea).
- 16:00 Puzgarriak (koltxoneta, kards...).
- 17:30 Txokolatada Zaharren Egoitzan.
- 19:00 Buruhandiak.
- 20:30 Herri afaria eta Bingo herrikoia (dirurik gabe, opari ezberdinekin...).
- 00:00 Dj Van goizaldearte. Goizaldean txokolatea txurroekin zahar egoitzan.

IRAILAK 23 IGANDEA

- 11:00 Toka txapelketa.
- 12:00 Hamaiketako txoznan.
- 14:00 Herri bertso-bazkaria, Ane Labaka eta Beñat Iguaranekin.
- 18:00 Neska Kabaret ikuskizuna (magia, malabareak). Ondoren buruhandiak.
- 19:30 Piper jana Ibaiondoren eskutik.
- 21:00 Jaien amaiera: traka eta suzko zezena.

Oharra: Jai Batzordeak ez du jai hauetan gerta daitezkeen kalteen erantzukizunik hartzen.

Langabezia tasak gorantz eg

Datu altuenetara gerturatzen ari da: Usurbilen 331 langabetu daude

Hego Euskal Herriko gehiengo sindikalak eta hainbat gizarte eragileek espainiar gobernuak onarturiko erreformen aurkako greba orokorra deitu dute, irailaren 26rako. Eta horrekin batera mobilizazioak datorren asteazkenearako. Usurbilen ere hainbat hitzordu finkatu dira jada, lehena ostiral honetarako. Erreformen ondorioak pairatzen ari direnak herritarrak dira salatu nahi dute besteak beste. Murrizketek konponbiderik momentuz behintzat, ez baitute ekarri. Azken urteotako krisialdi ekonomiko honi loturik, langabezia, lan falta, edota lanpostua galtzeko arriskua, herritarren kezka iturri izaten jarraitzen dute. Datuak eskutan, hala ere, Usurbil ez da izan langabeziak bereziki gogor kolpatu duen udalerrietako bat.

Abuztuan 331 langabetu zeuden Usurbilen, INEM-en arabera; 169 gizonezko eta 168 emakumezko. Sexuari begira beraz, datuak paretsu. Ez hainbeste ordea, adin tarteari dagokionean. Kasu honetan bai, nabarmenezko moduko aldeak daude. Gizonezkoetan 25-44 urte arteak biltzen du langabe kopuru altuena, 93 guztira. 86 emakumeen kasuan. Abuztuko datuak sektoreka sailkatuz gero, zalanztarik gabe, orain arteko joerari eutsiz, zerbitzuetan dago langabetu gehien, 202 guztira. Gero industrian, askoz gutxiago, 68.

Udako hilabete hauetan langabezia tasak gorantz egin du Usurbilen. Ekainean, 306 herritar ari ziren lan bila, uztai-



Greba deialdiaren harira antolatu diren mobilizazioetan parte hartzera deitu dute LAB sindikatuko kideek.

Buruntzaldeko beste herrietan, langabezia tasak Usurbilen baino altuagoak dira

lean 310 eta abuztuan, aipatu moduan, 331. Datuok neguan igo eta udaberrian zehar izan den beherezko joera hautsi dute. 2011ko abuztuan baino langabetu gehiago zegoen aurreko hilean. Duela urtebete, 321 langabetu zenbatu zituen INEM-ek Usurbilen. Orduko datuak eskutan, langabetuaren profila bere horretan mantentzen dela ondoriozta daiteke. 25-44 urte tartekoak dira lanik gabe dauden herritar gehienak, emakumeak eta zerbitzuen sektorekoak.

BURUNTZALDEAN, ONDOEN USURBILEN

Hori Usurbilen. Buruntzaldean zer? Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnietarekin alderatuta, azken hileotan gorantz egin arren, langabezia-tasa baxuena duen udalerria izaten jarraitzen du Usurbilek. Hala erakusten du te, alderaketa honi lotuta,

Usurbilgo Udalaren web orrialdeak "Usurbil Zenbakitan" izeneko atalaren barruan kaleratuak dituen azken datuek. Aurtengo ekaineko zifrak dira erakusgai daudenak. Hain zuzen, ordura arte langabeziak Usurbilen izandako beharakada islatzen da. %5,8koa maiatzarekin alderatuta, %4,1koa aurreko urteko datuekiko.

Buruntzaldean aldiz, %2,9koa zen jaitsiera aurreko hilabetearekiko, baina 2011ko datuekin alderatuta, langabezia tasa %4 igo dela ikus daiteke. Alde are nabarmenagoa dago, Gipuzkoa mailako datuak kontuan hartzen baditugu. Maiatzetik ekainera, herrialde mailako langabezia tasak %2,7 behera egin zuen arren, datu positiboa dela jakinik, iaztik hona %6,4 igo da langabetuen ehunekoa Gipuzkoan.

Buruntzaldea udalerriz udalerriz aztertuta, maiatzetik ekainera langabeziak udalerriz guztietan egin zuen behera; Usurbilen gehien (%5,8), Lasarte-Oria %4,1, Andoainen %2,9, Astigarragan %2,1,

Hernanin %1,9 eta Urnietan gutxien, %0,5. Bataz beste, Buruntzaldean %2,9 egin zuen behera. Kontuak oso bestelakoak dira ordea, ekaineko datuak iazko zenbakiekin alderatzen badira. Iaztik hona Usurbilen bakarrik egin du behera langabeziak, ekaineko datuon arabera %4,1. Gainerako udalerrietan gora egin du; Hernanin %6,4, %2,5 Lasarte-Oria eta Urnietan, %1,4 Andoainen, baina batez ere modu nabarmenean gorantz egin du langabeziak Astigarragan; %25,2an hain zuzen.

Abuztuko azken datuen arabera: 1.313 langabetu daude Lasarte-Oria, 1.312 Hernanin, 1.039 Andoainen, 366 Urnietan eta 291 Astigarragan. Usurbilen, 331. Buruntzaldean guztira: 4.652.

AZKEN JOERA, TXARRA

Langabeziak inguruko udalerririk bezainbeste ez du kolpatu Usurbil. Baina azken hileotan gorantz egiten hasi da berriaz lanik gabe dauden udalerririk honetako herritarren kopu-

gin du azken hilabetea



ELAren esanetan, "jo-puntuan dira langileak, langabeak, erretirodunak, gazte jendea eta menpeko pertsonak".

rua. Azken urteotan izandako langabezia maila datu altu-
netara gerturatzen ari da (337

langabetu urte hasieran, 341
2011ko neguan). Hurrengo hi-
labeteetan zer gertatzen den

ikusi behar; goranzko joerari
eutsi edota berriz ere behera-
ko bideari helduko dion.

Grebarekin bat egitera deitu dute Buruntzaldeko ELA-k eta LAB-ek

Azken hamarkadetako gizar-
te-murrizketarik handienak
gizarte osoa pobreziarantz
bultzatuko duela ohartaraziz, herri-
tarrak irailaren 26ko greba oroko-
rrekin bat egitera deitu zituen
Buruntzaldeko ELA sindikatuak, Her-
nanin duen egoitzan joan den asten-
an bailarako ordezkariak burutu
zuten agerraldian. "Bultzatu egiten
zaitugu artez parte hartzera sindi-
katuek eta gizarte-mugimenduek
gure Herriko bazter guztietan anto-
latuko dituzten mobilizazioetan, eta
batez ere irailaren 26ko ekintzarik
handienean, Hego Euskal Herriko
greba orokorrean", luzatzen dute
gonbita ELA sindikatutik.

Norbere sumindura eta haserrea
agertzera deitzen dute, murrizketen
aurka, lan eta gizarte eskubideen alde,
politikak zeharo aldatzearen alde:
"ELAK bestelako aukerak eskaintzen
ditu: hasteko, murrizketa horiek

Euskal Herrian ez aplikatzea, eta poli-
tika fiskalak eta sozialak zeharo
aldatzea", berri eman dute.

ELAren esanetan, "jo-puntuan
daude langileak, haien soldatak jais-
teko; langabeak, prestazioak gutxi-
tzeiko; herri-langileak, aparteko sariak
kentzeko; gaurko eta biharko erre-
tirodunak, pentsioak txikiagotzeko;
gazte jendea, prekarietatera konde-
natzeko; eta menpeko pertsonak,
senide zaintzaileak zigortzeko".

"EUSKAL HERRIAK DU HITZA ETA ERABAKIA"

LABek Hernanin duen egoitzan
Buruntzaldea mailako agerraldia
egin zuten joan den astean, greba-
ren arrazoiak azalduz. Irailaren 26an
Grega Orokorraren aldeko apustu
garbia egin du LAB sindikatuak,
"Euskal Herriak hitza eta erabakia"
adierazpenean argi utzi duenez.

Eskualde mailako agerraldian

bozeramaileak Eukene Villasante
eta Yoana Mendez izan ziren. Haie-
kin zen baita, besteak beste, Josu
Portu sindikatu bereko ordezkaria
eta udal zinegotzia ere Usurbilen.
Villasanteren arabera, "greba egi-
teko arrazoiak badaude eta jende-
ari dei egiten diogu antolatuko diren
ekimenetan parte hartzeko. Iraila-
ren 26an, Greba Orokorraren egu-
nean, arratsaldeko 18:00etan hasi-
ta manifestazioak burutuko ditu-
gu Andoaingo, Lasarten eta Her-
nanin Euskal Herriak hitza eta era-
bakia izan behar duela aldarrika-
tzeko".

Hitza eta erabakia aldarrikatu
zituen Mendezek agerraldiaren
amaieran, "irailaren 26an Euskal
Herriko kaleak bete behar ditugu gure
esparruan aplikatzen ari diren poli-
tiken norabidea behingoz aldatze-
ko eta gure herria izan dadin hitza
eta erabakia hartuko dituen".

Mobilizazioak

Joan den ostiralerako Usurbi-
len deitua zegoen batzarrean,
greba egunean, eta aurretik,
egunotan ere hainbat mobilizazio
antolatzea erabaki zen. Hona hemen,
murrizketen aurka irailaren 26ko 24
orduko lan uztetari begira deitua
dauden hitzorduek:

IRAILAK 21 OSTIRALA

- 19:30 Manifestazio zarata-
tsua frontoitik abiatuta. Deia:
"Ekarri etxeko kazola zaha-
rrak, txilipituak, danbor zaha-
rrak,... Zarata atera behar
dugu!!".
Deitzailea: herritarren greba
batzordea.

IRAILAK 22 LARUNBATA

- 17:30 Herrialde mailako
manifestazioa Donostian,
Bulebarretik abiatuta.
Deitzaileak: gehiengo sindi-
kala, hainbat gizarte eragile.

IRAILAK 24 / 25

- 19:00 Auto karabanak Oiari-
do Kiroldetgitik abiatuta.
Deitzailea: herritarren greba
batzordea.

IRAILAK 25 / 26

- Kanpaldia frontoian.
Antolatzailea: Itaya.

IRAILAK 26 ASTEAZKENA

- Eguerdian, herrialde maila-
ko manifestazioa Donostian.
Usurbildarrei, Anoetara joa-
teko deia.
Deitzaileak: gehiengo sindi-
kala, hainbat gizarte eragile.
- 18:00-18:30 Manifestazioa
Usurbilen, frontoitik abiatu-
ta. Deitzailea: herritarren gre-
ba batzordea.

Olío bilketa hobetu egin da sistema berriarekin

Ekainaren 1az geroztik martxan den olío bilketa sistema berria baloratu du web orri bidez, Usurbil Zero Zabor bilguneak. Adierazi dutenez, "aldaketa egin eta berehala hobetu dira bilketa-kopuruak".

Aldea zenbakitan islatu dute. Sistema zaharrean, asko jota sukaldean erabilitako 310 litro olío bildu izan dira. Saltokietan jasotzeko sistema berriarekin aldiz, joan den ekainean 520 litro bildu ziren. Usurbil Zero Zaborreko kideek gogorazten dutenez ordea, "oraindik asko dugu hobetzeko, kopuru honekin, erabilitako olíoaren laurdena ariko bait ginateke jasotzen. Alegia, sortzen dugunaren beste 3/4 oraindik estoldetara doala".

OLIOA NORA ERAMAN

Gogoa izan, etxean erabilitako olíoa, San Markoko kamioian eta Pikaolako garbigunean biltzeaz gain, hiru larrialdi guneetan ere birziklatu daitekeela.

Horretaz gain, kanpaina hasieran bezala, orain



Uztailean, kanpaina iragarri zen egunean, Porrotx hurbildu zen gure artera.

ere saltoki hauetan jarraitzen dute olío erabilia jasotzen: Alkartasuna kooperatiba, Imanol Txapartegi harategia, Aliprox supermerkatua, Alkorta Autozerbitzuak, Artzabal supermerkatua, Esnaola Echave, Otargoxo, Txalaka fruta dendak eta Eiza denda.

Guztira beraz, udalerriko 14 guneetan burutzen da etxeko olío erabiliaren bilketa.

Dantza Taldean izena emateko epea ireki da



Azpeitian, egunpasan izan ziren duela gutxi Dantza Taldekoak.

Datorren ostiralean, irailak 28, 2012-2013ko ikasturteko ordutegiak finkatzeko bilera deitu dute Dantza Taldeko kideek. Agerialdeko gimnasioan elkartuko dira, 16:30ean. Norbait izena emateko gogoz bada, dantzataldea@usurbil.com helbidera idatzi.

AZPEITIAN IZAN DIRA

Irailaren 4an asteartea, aurreko ikasturteko ikasleekin irteera egin zuten: "Azpeitiko igerilekuan izan ginen goizean eta gero Leaburura joan ginen". Argazkia irteera eguneko da. Bertan dira Dantza Taldeko ikasleak eta irakasleak.

Hitz Ahok antolaturiko guraso tailerretan, izen ematea irekita

Irailaren 26ra arte zabalik dago Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak ikasturte berri honetarako antolatu dituen hiru tailerretan izen emateko epea.

0-6 urte arteko haurren gurasoek, "Guraso izaten ikasiz" izeneko tailerrean parte har dezakete.

LH 1-4 mailetako ikasleen gurasoek; "Guraso eta seme-alaben arteko elkar ulertzea" izenekoan.

Azkenik, Joxe Amiama psikopedagogoren eskutik, "Nerabezaroa eta komunikazioa" izeneko tailerra antolatu du Hitz Ahok, LH 5-6 eta DBH-ko ikasleen gurasoentzat.

Tailer hauetan apuntatzeko bidali email bat hitzaho@udarregi.com helbidera, hilaren 26a baino lehen (kuota 30 eurokoa da).

Ingelesko mintza praktika taldea osatu nahi du EPA-k

Ingeles maila bat duten herritarrei zuzenduriko mintza praktika ikastaroa antolatu asmo du Usurbilgo EPA-k. "Iaz ingelesez mintza praktika ikastaro bat martxan jarri nahi izan genuen. Ezin izan genuen talde bat osatu eta bertan behera geratu zen. Berririo osatzen saiatuko gara, baina horretarako jendea behar dugu", berri eman dute. Interesdunek ikastaroa hontan eta EPA-ren gainerako eskaintzan apuntatu asmo duenak, telefono zenbakia hauetara deitu besterik ez du: 943 376 443, 943 366 608.

18 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko hezkuntza eskaintza da EPA. DBH-ko titulua eskuratu, hizkuntzetan edo informatikan trebatu, Unibertsitate eta Goi Mailako zikloetarako sarbide probak prestatu... eskaintza zabala dute aukeran.

Emakumezkoen Pala Ikastaroa

Emakumezkoen pala ikastaroan izena emateko epea urriaren 12an amaituko da. Izen-ematea Kirol Patronatuan egin behar da (50 euro). Ikastaroa urriaren 15ean hasi eta ekainean amaituko da.

Topa Eszenika, ikasteko eta ikusteko

DATORREN LARUNBATEAN, IRAILAK 29, ANTZERKIGINTZAREN HIRIBURU BILAKATUKO DA HERRIA

Ohi baino ekitaldi gehiagorekin bueltatu da Topa Eszenikaren laugarren edizioa. Iraila osoan zehar hainbat antzezlan ikusteko aukera eskaintzen ari dira Txerriki taldekoak. Irailaren 29an amaituko da aurtengoa, egun osoko egitarau honekin:

BERTAKO ARTEA EZAGUTZEN

■ **9:00** Usurbilgo artea ezagutzen: Zumetaren murala, Uxo Zumetaren eskutik.

ANTZERKI TAILERRA

■ **11:00** Antzerki tailerra Potxoenean: Idazketa I. Bideratzailea: Galder Perez. Nori zuzendua: adin guztietara irekia. Matrikula: 4 euro. Izen ematea: txerriki@gmail.com. Muralaren ekintzan oinarrituko da tailerra.



Orsai taldekoak frontoian arituko dira, arratsaldeko 18:00etan.

GURE KLOWN-A EZAGUTZEN

■ **15:00** Gure clown-a ezagutzen, tailerra Potxoenean. Bideratzailea: May Gorostiaga (Intujai Teatro).

Nori zuzendua: gazte eta helduentzako. Talde mugatua. Iraupena: 3 ordu. Matrikula: 8 euro. Izen-ematea: txerriki@gmail.com

"ORSAI" KALE ANTZERKIA

■ **18:00** "Orsai" kale antzerkia frontoian, Malas Compañías taldearen eskutik.

KANTU-JIRA

■ **19:00** Kantu-jira, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

"GURE BIDE GALDUAK"

■ **20:15** Dejabu panpin laborategiaren "Gure bide galduak" antzezlan Sute-gin (Donostia Antzerkia Saria 2012an). Sarrera egunean bertan, 10 euro. Aldez aurretik, 8 euro Txiribogan.

Zeberio, Murua eta Telleria, Udarregi Sariketako lehen izarrak



Umorea nagusi izan zen lehen finalerdian.

Ospatu da jada, bertsolari beteranoek lehiatu behar zuten Udarregi Sariketaren bigarren edizioko lehen finalerdia. Sei ziren hautagaiak, Xabier Zeberio, Mikel Mendizabal, Iñaki Murua, Altzo Txiki, Jokin Matxinandiarena eta Millan Telleria, eta hiru bakarrik izan zitezkeen finalistak. Haietatik bi epaimahaiak hautatu behar zituen, eta hirugarren bat, larunbatean Artzabalen ospatu zen bertso bazkarira joandako entzuleek. Giro ederrean ospatu zen hitzordua.

Epaimahaiak, Millan Telleria eta Iñaki Murua hautatu zituen. Entzuleek berriz argi zuten erabakia; saioari umore puntu nabarmena jarri zion Xabier Zeberio hautatu zuten, azaroaren 17an ospatuko den final handirako. Honenbestez, Udarregi Sariketako bigarren edizio honetako hiru bertsolari beterano finalisten izen abizenak ezagutzen ditugu jada.

Orain, hiru bertsolari gazteak nortzuk izango diren jakitea baino ez zaigu falta. Erantzuna, urriaren 12an, Aginagako San Praixkuetan.

Antzerki Txiki taldea, berriz ere martxan

Duela 5 urtetik antzerki talde bat martxan dago Usurbilen, Antzerki Txiki taldea hain zuzen. Udako oporren ondoren, berriz ekingo diote eta hauxe da interesatuei helarazi nahi dieten oharra: "larunbat goizetan elkartzen gara eta primeran pasatzen dugu".

4 URTETIK AUERRERA

4 urtetik gora eta 16 urtera bitarteko gaztetxoek ateak zabalik izango dituzte. Izen emateko aukera hilabete honen amaierarte egongo da zabalik. "Interesik baduzue idatzi e-mail bat antzerkitxiki@gmail.com helbidera", aditza eman dute.



4-16 urtekoei irekita dago taldea.

Lehia baino festa

Larunbat arratsaldean, "Euskaraz bizi nahi dut" herri lasterketa

Euskal Herriko 60 udal-erri baino gehiagotan, euskararen aldeko lasterketa bana ospatuko da larunbat honetan, irailaren 22an. Tartean, Usurbilen. 17:00etan abiatuko da Oiardo Kiroldegitik, eta 4 kilometro inguruko ibilbidea osatuta leku berean amaituko da.

- Lasterketan izena emateko: www.euskarazbizinahidut.org web orrian edota egunotan, goizez, Potxoenean.
- Denentzako moduko lasterketa da. Festa eta aldarrikapen girokoa, ez lehiakorra.
- Zirkuituko edozein puntutan sartu eta edozein puntutan atera daiteke (Korrikan egiten den moduan).



Udaleko zein euskaltegiko ordezkariak, lasterketaren aurkezpenean.

- Lasterketa buruan ibilgailu bat joango da musikarekin. Animatezaile: Leire Iturrioz.
- Patinete edo bizikletan, oinez ere joan daiteke. 17:00etan.
- Izen ematea ezinbestekoa, lasterketa ondorengo zozketetan parte hartzeko. Sari potoloak egongo dira.
- Ibilbidea: Kiroldegia, Alperro-Buru, San Inazio, Kale Nagusia, Bizkarre, Santuenea (auzo barrutik itzulia), Bizkarre, Erreka-Txiki, Puntapax, Bordatxo-ko errotonda, Kiroldegia.
- Luzera: 4km inguru.

Kiroldegiko ikastaroak

Aurreko astean aurreratu genuen bezalaxe, Usurbilgo Udal Kirol Patronatuak prest du 2012-2013 ikasturterako eskaintza osoa: aerobik, mantentze gimnasia, yoga, sabel dantza, pilates, 3. adina, spinning.

Eta igerilekuan, ikastarook eskainiko dira: haurtxoak (3-24 hilabete), uretara moldatzea (2005-2009 artean jaiotakoentzat), ur ludoteka (2005-2009 artean jaiotakoentzat), igeriketa hastapena eta hobekuntza helduentzat.

Izena emateko epea irekita dago oraindik.

Soinketa eta hip-hop Tximeletaren eskutik

Soinketa erritmikoko eta hip-hop ikastaroetan parte hartzeko aukera eskaintzen dute. Harremanetarako telefono zenbakia hau da: 943 11 63 42. E-postaz ere egin daiteke: info@clubtximeleta.com



Lagunarteko partida kiroldegian

2012/09/22, larunbata

Kadete neskak, 17.00etan
Usurbil K.E. - Elgoibar EKT

GPS ikastaroa antolatu du Andatzak

2011. urtean GPSaren erabilerran trebatzeko ikastaroa antolatu zuen Andatzak. Orduko ari jarraipena emateko asmoz, "mendizaletasuna eta teknologia lotzen dituen" Ordenagailuari aplikatutako GPS ikastaroa antolatu dugu urrian, adierazi digute Andatzatik.

Ikastaroa urriaren 16an hasiko da eta Udarregi ikastolako informatika gelan eskainia izango da. Izena emateko epea baina, urriaren 10ean amaituko da: "plazak mugatuak direnez, lehenbailehen izena ematea eskertuko genuke", azpimarratu dute.

Lehentasuna hala ere, Andatza Mendizale Elkarteko bazkideek izango dute.

Prezioa, 45 euro bazkideentzat; 50 euro gainontzekoentzat. Informazio gehiago www.andatza.com webgunean aurkituko duzue.

ARTIKUTZARA, GOIZ-PASA

Urriaren 21ean igandea, Artikutza aldera joango dira Andatzakoak. "Hauteskunde eguna denez, goiz-pasako ibilbidea izango da, eta bozka emateko ez duzue izango inolara.



Urriaren 21ean Artikutzara joango dira, "goiz-pasa" egitera.

ko eragozpenik", argitu nahi izan dute. Xehetasun gehiago laster emango dituzte.

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL

677 37 34 66
943 36 21 78

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, n°2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Giro ederrean

Jende ugari aritu zen korrika eta jende ugari elkartu zen animoak ematera

Ia 300 lasterkari batu ziren Baxurde Txiki Triatloi Taldeak antolatu zuen lasterketan. Mutiletan, David Martin Blazquez (35:11) lasarteak irabazi zuen lasterketa. Bigarren Ibai Alba Vilchez hernaniarra (35:26) izan zen, hirugarren Raul Gomez Margallo lasartearra (36:10). Nesken artean, Eva Pelaez Zabala andoaindarrak irabazi zuen (44:00), bigarren izan zen Idoia Ezeiza Iruretagoiena usurbildarra (45:50) eta hirugarren Uxune Tena Ugarte (45:58).

Usurbildarren artean, nesketan lehena Idoia Ezeiza izan zen eta bigarren Rosa Uribe. Hirugarren sailkatua Loli Elka-



Irudietan, lehen bi usurbildarrak (argazki gehiago: noaua.com Argazkitegian).

no Irustia. Mutiletan lehena Carlos Fernandez izan zen, bigarren Iñaki Gerika eta hirugarren Jose Mari Seoane. Amaieran, zozketak egin ziren partehartzaile denen artean.

SUSTRAI SENDOAK

Korrika aritzeko afizioa gero eta handiagoa da. Baxurde Krosak leku bat lortu du zale-tuen bihotzean. Ibilbidea ederra eta antolaketa ona delako.

BAXURDE KROSA 2012. USURBILDARREN DENBORAK

00:37:55	CARLOS FERNANDEZ
00:38:15	IÑAKI GERICA JUAN
00:43:23	JOSE MARI SEOANE MAYOZ
00:45:12	XABIER UDABE PAGOLA
00:45:14	AHILETZ ZULOAGA LARREA
00:45:17	ANDER OSA UNSAIN
00:45:46	JOKIN REZOLA MENDIKUTE
00:45:50	IDOIA EZEIZA IRURETAGOIENA
00:46:04	IGOR MAIZ PAGOLA
00:46:07	TITO IZAGUIRRE GODINEAU
00:46:09	FLOREN LANTZ BORDAGARAI
00:46:18	ROSA URIBE NABARRO
00:46:42	GUILLER RUEDA ETXEBERRIA
00:46:43	JAVIER ARTOLA AROCENA
00:47:25	ANDER IRURETAGOIENA
00:47:42	ALEX UDABE PAGOLA
00:47:42	MIKEL ALKORTA
00:47:50	JOSU ZALAKAIN MARTY
00:47:56	GORKA URANGA GARCIA
00:47:59	ALEX CASTANDER URRUTIA
00:48:04	IÑIGO UNANUE
00:48:27	AITOR JAUREGUI
00:48:47	GARIKOITZ BASURTO
00:49:06	UNAI AGIRRE OTEGI
00:50:00	KOLDO LERTXUNDI AZKUE
00:50:24	ENEKO PORTU IRASUEGI
00:50:44	IÑAKI ETXEBARRIA ORBEGOZO
00:51:02	ANDONI UDABE ASTIGARRAGA
00:51:29	DANI ITURBE PALACIOS
00:51:29	GORKA ASTIAZARAN
00:51:49	JULEN GEREÑU FARIÑAS
00:51:50	ANTTON KORTA TORRENTE
00:51:50	JON MIKEL ZABALA ARIZMENDI
00:52:04	ANDER AYUSO CASANOVA
00:52:05	ENRIKE HUIZI PAGOLA
00:52:25	MIKEL SANTIAGO GARZON

00:52:25	IKER CORRAL LIZARRAGA
00:52:53	XABIER LAZKANO
00:53:11	NOEMI MONTERO SISTIAGA
00:53:41	BEÑAT BERECIARTUA
00:54:47	JUAN MARI AGOTE GOYARAN
00:54:47	IMANOL ALMANDOZ
00:54:48	KERMAN REKONDO ARZALLUS
00:54:48	IÑAKI ERREKONDO
00:54:59	PEIO GUIASADO BAYÓN
00:55:06	LOLI ELKANO IRUSTIA
00:55:41	LUKAS ARROSPIDE JAUREGUI
00:55:43	MIKEL ZUBIGARAI MORILLAS
00:55:54	MANEX TORREALDAI GORRITI
00:55:56	IMANOL ERRAZQUIN
00:55:56	EKHI ARRIETA DEL PICO
00:56:01	JON OLASAGASTI CENCILLO
00:56:07	MIKEL ITURRIOZ
00:56:21	JON ELORZA IRIGOIEN
00:56:45	ANDONI UNSAIN IRIZAR
00:56:52	XABIER PAGOLA URANGA
00:57:08	EGOITZ TORREGARAY
00:57:14	ELI APERRIBAI BASTERRETxea
00:57:25	IONE IRURETAGOIENA EZEIZA
00:57:53	MIKEL BERECIARTUA
00:58:00	MIREN EZEIZA
00:58:28	URKO GOIKOETXEA ARANZETA
00:58:29	UNAI LATAILLADE
00:58:35	AITOR PAGOLA ARIZMENDI
01:00:47	ITZIAR OTXAGABIA AZPITARTE
01:00:50	ENERITZ AGIRRE
01:00:54	LOREA ARANALDE ARRUTI
01:03:04	ERRAMUN ERRO AIZPURUA
01:03:06	JULEN LERTXUNDI OLAZABAL
01:04:48	SAIOA SARASOLA MIGUE
01:04:48	ALFONSO VIDAL

www.kirolprobak.com web orrian jasotako datuak.

Futbol Eskola

Izena emateko: irailaren 19 eta 21ean, 17:30-19:30 artean Hara-neko bulegoan. Usurbil FT-kantolaturiko taldea, LH 3,4 eta 5.mai-letako ikasleei zuzendua dago. Urteko kuota, 150 eurokoa da. Entrenamenduak ostiraletan izango dira: 17:00-18:30.

Aginagako Banderan, lehen aldiz, emakumeak

Lehen aldiz, Aginagako I. Emakumezkoen Trainerila Txapelketa jokatu da. Irailaren 29an larunbata 15:30ean hasita, Oriako uretan: Getaria, Orio, San Juan, Hondarribia, Hibaika eta Agiña lehiatuko dira. Gizonezkoen Trainerila Txapelketan, aldiz, Agiña, Hondarribia, San Juan, Getaria, Kaiku eta Orio.

Aginagako Pala Txapelketa

Irailak 20 osteguna, 19:00h

Xabier Errasti-M. Galarraga
Igor Alkorta-Iban Arruti

Unai Loidi-Eneko Arregi
Enrike Huizi-Jon Olaizola

Irailak 27 osteguna, 19:00h

Xabier Murua - Josu Errekondo
Enrike Huizi - Eneko Arregi

Josu Arruti-Imanol Esnaola
Igor Alkorta-Manuel Galarraga

Gipuzkoako Txapelketa

Irailak 21 ostirala

Aginagan, 19:30ean

Eskuz binaka Nagusiak 1. maila
Usurbil-Beloki
(Asier Portu - Julen Urruzola)

Gomazko paleta gizonezkoak
Nagusiak 1. maila
Usurbil-Aia
(Xabier Errasti - Jon Olaizola)

Eskuz binaka Nagusiak 2. maila
Usurbil-Aurrera Saiaz 1
(Gorka Mendizabal - A. Katalina)

ETXEBIZITZA**Salgai**

Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde-jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 180.000 euro. 943370957.

Landetan (Vieux Boucau) apartamentu bat (4 pertsona) alokatzen da, Boucanier erresidenztzian. Aste osoa, astebukaerak, nahiz egun askeak. 653 014518

11 urteko pisu bat salgai Aginagan, 3 logela, sukaldea, egongela, 2 komun, 2 balkoi, garajea (30 m) eta trasteroa. 173.000 euro. VPO baldintzak. 657703091

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera eta argitasun haundikoa. 677471648.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua alokatzen da Kaxkoan, Txaramunto kalean: 3 gela, sukaldea, bi komun eta sala. Garajea aukeran. Abala eskatuko da. 656 75 70 73.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462

3 logelako pisu bat alokatzen da Muna Lurra kalean. 661 43 63 53.

Lau logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. Informazioa: 659389707 / nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Etxe bat alokatzen da Artaxoan (Nafarroa). 4 logela, jangela handia, lorategia. Hilabeterako edota baita uda parterako ere. 450 euro. 670 090 262 (Irene)

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaUA.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!ko erredakzio batzordeak ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairukoa, bakoitzat 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisu bat salgai Kaxkoan. Dena berritua. 3 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua eta prezio onean. 697 204 758.

Aukera ezin hobea! Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Pisua alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.

3-5 gela arteko pisua alokatzen dut Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurrerarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu

eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.

Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainu-gela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara, igogailua. 662 056 899.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, dena berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzaren jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.

Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.

Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.

MOTORRA**salmenta,****garajeak**

Citroen Gran C4 Picasso salgai 2008. urtekoa, 78000km eta oso zaindua. (7 plaza). 695810048

Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Scooter bat salgai, 450 euro. Egoera onean. 678 603 659.

Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro koadro. 250 euro. Gazteentzat egokia, Atxegalden. 628 063 871.

Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.

38 m garaje itxia salgai, Txaramuntan. 665 677 195.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Arratsaldetan umeak zaintzeko neska bat. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

Lan eskaintzak

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrek emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrek emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat eskaintzen da haurrak zaindu edota klase partikularrek emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

Neska arduratsua garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Zorion-agurrak



Zorionak Mohamed eta zorionak Hamadi!
Irailaren 18an 9 urte beteko dituzue. Ondo ondo pasa eguna!



Zorionak Nora! Etxeko errokillerak abuztuaren 30ean bete zuen urtetxoa. Muxu potolo bat etxeko guztien partez!

**Heriotzak****Tomas Bereciartua Mayo**

87 urterekin hil zen irailaren 13an, Aginagan

**Paco Santiago Nieto**

88 urterekin hil zen irailaren 11n, Usurbilen



17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)

16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerrako lehen maila amaitua. 665754889 / 692577515 (Xabier)

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxe-ko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldari laguntzaile edo baserri-ko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxe-ko lanak egiteko eta osta-

laritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf.: 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxe-ko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsaldean edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atze-

rriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomaduna naiz. Badut esperientzia. 652712099.

BESTELAKOAK

Kaffa inguruan betaurreko batzuk agertu dira. Gizonezkoenak, zilar koloreko montura dutenak. Galdu dituenak, optikatik pasa bila.

Hainbat produktu erabili gabeak salgai: aleta berriak, "Ultra-

light" kanpin denda (2 kg, trapesietarako), mendiko bota teknikoak ("La Sportiva" markakoak), patinak (44 neurrikoak), "paravientos" bat, eta erabilagok dauden "esku libreak". Interesdunek deitu: 679 471 831 (Jon) edo 662 049 514 (Lide).

Ingelese hitz egin nahi, herri-rik mugitu gabe? Ingelesko mintzapraktikarako taldea osatzen nabil. 670 382 999 (Unai).

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai prezio one-

an. Telefono mugikorra: 637 974 994 Itziar

Kotxe kapota bat dohainik. Norbaitek nahiko balu deitu telefono honetara. Tel. 657 714 355.

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

Mutil baten txamarra, talla 10-12, galdu zaigu frontoian. Beig eta urdin kolorekoa. 656 702 957.

Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223

Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon" en. Aste Santuko bigarren astea, uztaila eta iraila. "Punta Lago" kanpinen. 634 443 909.

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Haur sila eta kapazoa erosiko nuke: 667 715 075.

Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.

Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Taxia (Angel)	607 928 770
Atez ateko bulegoa	943 369 113	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udaltzaingoa	943 361 112	Eusko Tren	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Anbulategia	943 362 013
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Oa botika	943 376 076
Bake Epaitegia	943 372 336	Iturralde botika	943 363 395
Udarregi Ikastola	943 361 216	DYA	943 464 622
Haur Eskola	943 374 061	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Emergentziak	112
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Hastapen tailerrak	943 360 465	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
KZgunea	943 570 999	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Oiaro Kirolegia	943 372 498	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Banco Popular Español	943 370 411
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	BBVA	943 377 155
Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Kalezar Egunko Zentroa	943 365 249	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Telefonica	1004
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak irailaren 20tik 30era

Osteguna 20 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Ostirala 21 ORUE Pl. Jaizkibel 2 Lasarte

Larunbata 22 RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

Igandea 23 RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

Astelehena 24 DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

Asteartea 25 RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

Asteazkena 26 GIL Kale Nagusia 24 Lasarte

Osteguna 27 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ostirala 28 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Larunbata 29 GIL Kale Nagusia 24 Lasarte

Igandea 30 GIL Kale Nagusia 24 Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE. Elkano kalea 9, behe.
Hernani. Tel.: 943 552 087
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

USURBIL AUTOAK

· TAILERRA · KARROZERIA · KOTXEEN SALMENTA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala

Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

Agenda Iraila

21 ostirala

■ **Santueneko jaien hasiera**, 17:00etan txupinazoa eta txokolatada, Tragoxkan.

22 larunbata

■ **"Euskaraz bizi nahi dut"** herri lasterketa. 17:00etan abiatuko da, kiroldegitik.

23 igandea

■ **Trukea Usurbilgo gaztetxean**. 11:00etatik 14:00etara trukea eta ondoren bazkaria.

Datorren astean Zubietan, bertso-afari musikatua

Zubietan Lantzen bilguneak bertso-afari musikatua antolatu du irailaren 22rako. Gaueko 21:00etan hasiko da saioa, Barazar jatetxean. Iker Iriarte gai jartzailearen agindupean arituko dira honako lau bertsolariok, bat etxekoa gainera; Axier Azpiroz zubietarra, Unai Gaztelumendi, Amaia Agirre eta Iñaki Gurrutxaga.

Bertso-afari musikatuan dastatu ahal izango den menua hauxe izango da: legatz pastela (hurrek: espagetiak tomatearekin), entsalada mixta, erredondoa saltsan, flana helatuarekin, kafea, urteko ardoa, sagardoa eta ura. Afaritarako txartelak aldeztu aurretik erosi beharko di-



Txartelak erosteko azken eguna: irailak 20, Barazarren. Argazkian, Asier Azpiroz.

ra, Barazarren bertan. Hilduenak 20 eurotan, eta haurrenak 14 eurotan salgai egongo dira hilaren 20ra arte. Antolakuntzatik ohartarazi dutenez ordea, "jangelan 40 lagunentzat dago lekua, beraz, axkar ibili!".

Dantza talde berria osatzeko deialdia

20 urtetik gorako neska mutilez osatu nahi da talde berria. Euskal dantza oinarri hartuaz, dantza berriak sortzeko gogoz dira. Interesaturik daudenek, hona deituz eman dezakete izena: 657 77 94 24.

Larunbatean hasiko da ogi ikastaroa

Goizez izango da ikastaroa, 9:30-14:00 bitartean, Agerialdeko jangelan. Izena eman nahi duenak deitu dezala zenbaki honetara: 608 566 683 (Beñat). Ikastaroan parte hartzeko 30 euro ordaindu beharko dira.

Datozenak

Artzabalen bilera, Gure Pakeak deituta

Memoria lantzen ikastaroa urrian hasiko da. Baina taldeak osatzeko bilera deitu dute: irailaren 24an astelehena, 17:00etan Artzabalen.

Kantu Taldea, berriz ere martxan

Kantu Taldeko kideek iazko martxa jarraituko dute ikasturte berrian. Hilabeteko azken larunbatean elkartuko dira kalejira ari zeko. Entseguen ere hastear dira. Asteartean, irailak 25, Udarregi ikastolan batu-ko dira 18:30ean, kantuak errepasatzeko.



IV. Topa Eszenika

"Ispilua", "Orsai" eta "Gure bide galduak" antzezlanak, tailerrak... Asteburu bete antzerki izango da datorrena.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Baserriko haragia
•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak
Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

ZUEK EGITEN DUZUE POSIBLE

Herri aldizkaria, aldizkariaren banaketa,
noaua.com, Udajolas, Ihauteri Jaia, Kulturaldia,
Santo Tomas azoka, bestelako argitalpenak...

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA JASO OPARIA!

noaua
euskararen aterpe



BAZKIDETZA

IZENA: _____ ABIZENAK: _____
 JAIOETZE DATA: _____ JAIOETERRIA: _____
 N.A.N ZENBAKIA: _____
 HELBIDEA: _____ HERRIA: _____ POSTA KODEA: _____
 ETXEKO TELEFONOA: _____ MUGIKORRA: _____
 POSTA ELEKTRONIKOA: _____ K/K ZENBAKIA: _____

Usurbilgo Noaua! kultur elkarteko bazkide izan nahi dut eta nire kontutik bazkidetza kuotaren helbideraketa (36€) baimentzen dut.

Sinadura:

Usurbilen,



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

663 08 76 71
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L.
teillatuak eta fatxadak

943 37 38 79
620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Josue
Igeltseritza S.L.

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra

943 240 176 eta 649 435 470

Oztaran auzoa 33, URNIETA



ANORCA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza · segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

LATAILLADE
ITURGINTZA

Gasa, berogintza,
klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

Javier Orbegozo
GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3.esk

JOSEBA
ARANGUREN
ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12

Bainu eta sukalde
erreformak, gasa,
berokuntza

Jose txo Ikatseta

687 951 225



MARGOAK - PAPERAK
FERNANDO
PINTORAK

ENPAPELAKETAK eta
PINTURAK OROKORREAN

nagusia, 1 TEL: 943 36 60 19



Antonio
URRUZOLA
AROTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Imanol
AROTEGIA

943 362 664

Barren Elxe kalea ZUBIETA



izagirreletrizitatea@hotmail.com

izAgirre
Elektrizitatea

Apdo. 37
943 36 50 95
609 06 81 11
943 37 65 87

Goiz Argi etxea n° 37
Kale Zahar Auzoa

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL